

Erref: KM_2017_Igogailuak_02

**BERMEOKO UDALEKO TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZURAKO
KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA**

Bermeoko Urrian, Intxausti kaleko batzar gelan, 2017ko apirilaren 4an, goizeko 08:00 direnean, batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburuaren ordezkoa
Amaia Elorza Elortegi A^a, zinegotzia
Jose Maria Larrozea Etxebarria, zinegotzia
Sergio Ugalde Zabala J^a, zinegotzia
Karmele Muñoa Arrigain A^a, Udaleko Idazkaria
Idurre Basterretxea Altonaga A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, Kontratazio Mahaiaren idazkaria

Batzar honetan Zerbitzu Saileko teknikaria, aholkulari moduan jardungo da.

Kontratazioaren helburua: Udal igogailuen eta ate automatikoen mantentze zerbitzua.

Aurkeztutako eskaintzak:

- Orona. S.Coop
- Schindler, S.A.
- Iza Ascensores, S.L.
- Industrias Montañesas Eléctricas Mecánicas, S.L (IMEM, S.L.)
- Thyssenkrupp Elevadores. S.L.U.

Zerbitzu Saileko teknikariak B gutun azaleko dokumentazioa aztertzeko orduan, eskaintza guztietan aurkeztutako dokumentazioan, konkretuki, baldintza tekniko orrietako 12. puntuko 12.2 eta 12.4 azpi-puntuetan adierazitako informazioa ez da bere osotasunean betetzen.

Bestalde, 12.3. puntuan, eguneraketa teknologikoa, ez da argi azaltzen nork bideratu eta ordaindu behar dituen aurkeztutako hobekuntza proposamenak.

Hartara, enpresei hiru eguneko epean, puntu hauek argitzeko dokumentazioa gehigarria aurkezteko errekerimendu bidaltzea erabakitzen da.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

